Ayuntamiento de Esteribar
Esteribarko Udala

# ESTERIBAR

AÑO 2 | diciembre 2021 - NÚMERO 7 2. URTEA | 2021ko - abendua - 7. ALEA

**BOLETÍN DE INFORMACIÓN MUNICIPAL | UDAL INFORMAZIO ALDIZKARIA**




IMPRESO SIN DOMICILIO POSTAL
POSTA HELBIDERIK GABEKO INPRIMAKIA

EL SERVICIO DE EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE ESTERIBAR

ABRE EN OLLOKI LA NUEVA CAFETERÍA-BAR-TIENDA

JUVENTUD Y VIVIENDA EN EL I FORO JOVEN DE ESTERIBAR

CONCEJOS DE ESTERIBAR: LARRASOAÑA

INFOESTERIBAR, INFORMACIÓN DEL AYUNTAMIENTO A TRAVÉS DE WHATSAPP

*ESTERIBARKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA*

*OLLOKIKO KAFETEGI-OSTATUDENDA BERRIA ZABALIK*

*GAZTEAK ETA ETXEBIZITZA ESTERIBARKO I. GAZTE FOROAN*

*ESTERIBARKO KONTZEJUAK: LARRASOAÑA*

*"INFOESTERIBAR", UDALAREN INFORMAZIOA WHATSAPP BIDEZ*

**Boletín de Información Municipal del Ayuntamiento de Esteribar**
**Esteribarko Udalaren Informazio Aldizkaria**

BOLETÍN DE INFORMACIÓN MUNICIPAL
ESTERIBARKO UDAL INFORMAZIO ALDIZKARIA

Año 2 - número 72 Urtea - 7. alea

**Edita | Argitaratzailea**
Ayto. de Esteribar
Esteribarko Udala
Avda. de Roncesvalles,
Orreaga Etorbidea
13 - 31630 - Zubiri
Tfno.| Tel.: 948 30 40 71
www.esteribar.org
**Diseño y redacción**
**Disenua eta erredakzioa**
Argus CCI Ediciones
**Fotografías | Argazkiak**
Blanca López
Archivo | Artxiboa
**Imprime | Imprimatzailea**
Huarte Gráfica
**Depósito Legal | L. gordailua**
D.L. 899-2020

## TELÉFONOS DE INTERÉS | | TELEFONO INTERESGARRIAK

A. de Esteribar | Esteribarko U. (Zubiri) 948 304 071
Servicios Sociales (Cita Previa) 948 333 223
Agencia de Desarrollo Rural Cederna (Cita Previa) 639 905 357
Servicio de Euskera 948 304 071
Polideportivo de Esteribar 948 304 007
Centro Cívico de Olloki 948 517 796
Registro Civil 948 304 071
Juzgado de Paz 948 304 300
Escuela Infantil de Esteribar 948 361 575
Colegio Gloria Larrainzar 948 304 513
Consultorio de Zubiri 948 304 106
Consultorio de Larrasoaña 948 304 342
Consultorio de Eugi 948 304 319
Centro de Salud de Huarte 948 335 033
Farmacia Lda. Liso (Zubiri) 948 304 226
Taxi F. Ventana (Zubiri) 609 447 058
Serv. Autobús línea A. Artieda 948 300 287

## CONCEJOS KONTZEJUAK

C. de Antxoritz | Antxorizko K.: Ana Gurbindo | concejodeantxoriz@gmail.com
C. de Eugi | Eugiko K.: Unai Seminario | concejodeeugi@gmail.com 948 304 047
C. de Inbuluzketa | Inbuluzketako K.: Fran Equisoain | franequi@hotmail.es 948 304 139
C. de Iragi | Iragiko K.: David Sánchez | concejoiragi@gmail.com
C. de Larrasoaña | Argiloa Mangado | concejodelarrasoana@gmail.com
C. de Saigots | Saigotzko K.: David Urio | davidurioe@yahoo.es
C. de Sarasibar| Sarasibarko K.: Enrique García | concejo.sarasibar@gmail.com
C. de Zabaldika | Zabaldikako K.: Cruz Zazpe | concejodezabaldika@gmail.com
C. de Zubiri| Zubiriko K.: Alvaro Fonseca | concejodezubiri@gmail.com 948 30 43 78
C. de Urdaniz |Urdaizko K.: Txus Arana urdaitzurdaniz@gmail.com

## ¡DESCUBRIR ESTERIBAR TIENE PREMIO!

Aquí tienes una foto de un lugar del valle. Si sabes cual es, envíanos tu respuesta a noticiasesteribar@gmail.com, tenemos un regalo para sortear el 20 de enero de 2022 entre quienes participeis.

## ESTERIBAR DESKUBRITZEAK SARIA DU!

Hona hemen bailarako toki baten argazkia. Zein den baldin badakizu, bidal iezaguzu zure erantzuna noticiasesteribar@gmail.com helbidera. 2022eko urtarrilaren 20n opari bat zozketatuko dugu parte hartzen duzuenen artean.



## ¿HAY UN TEMA QUE TE INTERESA O QUIERES PUBLICAR ALGO?
## GAIREN BAT INTERESATZEN ZAIZU EDO ZERBAIT ARGITARATU NAHI DUZU?

Si hay algún tema que te interesa especialmente o quieres comunicar una información de interés, ponte en contacto con nosotros a través noticiasesteribar@gmail.com en el BIM Esteribar tienes tu espacio

Gai bat bereziki interesatuz gero, edo informazio interesgarri bat jakinarazi nahi baduzu, jar zaitez harremanetan gurekin: noticiasesteribar@gmail.com Esteribarko buletinean duzu lekua.



¡FELIZ NAVIDAD! DICIEMBRE 2021EKO ABENDUA ZORIONAK!

*Por segundo año consecutivo, vamos a celebrar esta Navidad con incertidumbre, tanto por la nueva ola de la pandemia y su importante repunte de casos, como por la subida de precios, y otros factores que amenazan la recuperación de la economía. Son tiempos difíciles, pero no nos dejemos doblegar. Actuemos con responsabilidad por el bien común.*
*El Ayuntamiento os desea*

**FELIZ NAVIDAD Y PRÓSPERO 2022**

*Bigarren urtez jarraian, ziurgabetasunean ospatuko ditugu Gabonak, bai pandemiaren olatu berriagatik, kasuen gorakada handiagatik, prezioen igoeragatik zein ekonomiaren suspertzea arriskuan jartzen duten beste faktore batzuengatik ere.*
*Garai zailak dira, baina ez gaitezen uzkurtu. Guztion oneko erantzukizunez jokatu.*

**EGUBERRI ON ETA URTE BERRI ON 2022**

Matilde Añón. Alcaldesa. Alkatea.

SERVICIOS | ZERBITZUAK



## EL SERVICIO DE EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE ESTERIBAR

Jaione Dorai Oskotz es la técnica del Servicio de Euskera de Esteribar desde julio de 2020. El servicio lleva 26 años funcionando y desde hace 11 depende directamente del ayuntamiento del valle. "Nuestro objetivo es el fomento del euskera tanto en el propio ayuntamiento como en el valle, potenciando su presencia y su uso en el día a día, partiendo de la situación sociolingüística actual", nos dice Jaione. "El Servicio elabora un plan de actuación anual dirigido a impulsar la normalización del euskera de manera transversal en diversos ámbitos".

A su vez, está integrado en la Red de Servicios de Euskera de Navarra (NUETS) en la que trabajan de forma conjunta diversos proyectos, por ejemplo, la página www.elaide.eus, con recursos para quienes aprenden euskara y el portal www.era.eus, dirigido a padres y madres de niños y niñas de 0 a 12 años. El servicio de euskera lleva a cabo programas específicos para el valle en el ámbito educativo en colaboración con el Colegio y la Escuela Infantil; al igual que de ocio y cultura, colaborando con la ludoteca y organizando diferentes talleres o actividades culturales. También organiza campañas para fomentar el aprendizaje del euskera entre personas adultas, y ofrece el servicio de traducción y corrección de textos, rótulos y carteles a Concejos, entidades, comercios, autónomos, empresas y asociaciones del valle. "Animamos a todas las personas que lo necesiten a utilizar este servicio y entre todas consigamos que todas las comunicaciones públicas sean bilingües", señala Jaione. Si tenéis cualquier duda o queréis información, podéis llamar al 618 757 377 o enviar un mail a euskara@esteribar.org

## ESTERIBARKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

*Jaione Dorai Oskotz dugu 2020ko uztailetik Esteribarko Euskara Zerbitzuko teknikaria. Zerbitzuak 26 urte daramatza martxan, eta duela 11 urtetik ibarreko udalaren menpe dago zuzenean. "Gure helburua euskara sustatzea da, udalean bertan zein ibarrean euskararen presentzia eta eguneroko erabilera bultzatuz, egungo egoera soziolinguistikotik abiatuta", esan digu Jaionek. "Zerbitzuak urteko jarduera-plana prestatzen du, euskararen normalizazioa zehar lerro gisa hainbat esparrutan bultzatzeko".*

*Hainbat proiektu Nafarroako Udaletako Euskara Teknikarien Sarearekin (NUETS) lankidetzan garatzen dira, hala nola, www.elaide.eus orria, euskara ikasten dutenei begirako baliabideekin, eta www.era.eus ataria, 0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoentzat.*

*Ibarrerako berariazko programak antolatzen ditu hainbat eremutan, esaterako, hezkuntzaren esparruan eskolarekin eta haur eskolarekin lankidetzan; baita aisia eta kulturaren eremuan ere, besteak beste, tailer edo kultura-jarduerak antolatuz zein ludotekarekin elkarlanean arituz. Helduen artean euskara ikastea sustatzeko kanpainak ere antolatzen ditu, eta testuen itzulpen eta zuzenketa zerbitzua ere eskaintzen die kontzejuei, entitateei, saltokiei, autonomoei, enpresei zein ibarreko elkarteei eguneroko mezuak, errotuluak eta kartelak itzuli edota zuzentzeko laguntza emanez. "Zerbitzua hau erabiltzera animatzen ditugu behar duten guztiak, guztion artean lortu dezagun komunikazio publiko guztiak elebidunak izatea", dio Jaionek. Zalantzarik izanez gero edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 618 757377 telefonora edo idatzi euskara@esteribar.org helbidera.*



## VUELVEN LAS ACTIVIDADES AL CLUB DE JUBILADOS Y JUBILADAS DE ESTERIBAR

## ITZULI DIRA ESTERIBARKO JUBILATUEN KLUBEKO JARDUERAK

La edad no es una excusa para disfrutar de muchísimas cosas, la jubilación es el inicio de una época en la vida que puede ser realmente satisfactoria, y el Club de Jubilados y Jubiladas de Esteribar es el lugar de encuentro y aprendizaje donde compartir el tiempo y relacionarse. El último cuatrimestre el Club ha ido retomando la actividad y se han vuelto a organizar actividades. "Hemos hecho lo que hemos podido", nos dice Vicky, miembro de la Junta, "Betargi ha permanecido cerrado, ni comidas, ni día del Socio, pero seguimos con los cursos de pilates, yoga, reordenación postural y gimnasia, tan importantes para mantener una buena forma física y el servicio de podología en el Polideportivo. Hemos hecho talleres teatralizados de Ictus e Infarto, taller de Memoria y se ha creado un Grupo de Paseos. Seguimos con los talleres de igualdad, de informática, de manejo de móvil y de primeros auxilios; un taller de apoyo a la lectura dirigido por el escritor Roberto Valencia y una sesión de Cinefórum. Este año hemos hecho una excursión a La Guardia y Nájera, y en noviembre según lo previsto 38 personas viajamos y disfrutamos de Córdoba y Sevilla. En 2022 queremos retomar el grupo de Dantzas y el "Amitxi, apitxi".

*Adina ez da aitzakia ez gozatzeko, are gehiago, erretiro garaia benetan pozgarria izan daitekeen bizitzako garai baten hastapena dugu. Esteribarko Jubilatuen Kluba ikasteko eta elkartzeko topaleku ezin hobea da, elkarrekin denbora partekatu eta harremanak josteko aukera eskaintzen duelako. Klubak jarduerari berrekin dio azken lauhilekoan, eta hainbat jarduera antolatu dituzte. "Ahal izan duguna egin dugu", esan digu juntako kide Vickyk, "Betargi itxita izan dugu, bazkaririk eta Bazkidearen Egunik gabe, baina martxan ditugu hainbat jarduera: pilates, yoga, jarrera-berrantolaketa eta gimnasia ikastaroak oso garrantzitsuak dira forma fisiko egokian mantentzeko, eta podologia-zerbitzua ere martxan dago kiroldegian. Iktus eta bihotzekoen antzerki-tailerrak eta memoriaren inguruko tailerrak egin ditugu, eta Paseatzeko Taldea ere sortu da. Aurrera jarraituko dugu berdintasuna, informatika eta mugikorraren erabilerari eta lehen sorospenei buruzko tailerrekin. Hauetaz gain, Roberto Valencia idazleak zuzendutako irakurketari laguntzeko tailerra eta zineforum saio bat ere antolatuko ditugu. Aurten txangoa egin genuen Laguardia eta Najerara, eta azaroan 38 lagun Kordoban eta Sevillan izan ginen bidaiaz gozatzen. 2022an dantza taldea eta "Amitxi-apitxi" berreskuratzea da gure asmoa.*



## ABRE EN OLLOKI LA NUEVA CAFETERÍA-BAR-TIENDA

## OLLOKIN KAFETEGI-OSTATU-DENDA BERRIA ZABALIK

"Los vecinos están encantados y nosotros también", nos dice Jon Leache que junto a su hermana Katrín y su padre José Miguel se ha hecho cargo de la nueva cafetería-bar-tienda de Olloki. Jon nos dice: "Abrimos hace cuatro semanas, siempre nos hemos dedicado a la empresa, aunque no a la hostelería; hasta hace 2 meses hemos estado al frente de nuestra empresa de panadería, pero ahora nos dedicamos en exclusiva a este proyecto. El local se llama Athika 21 y estamos pendientes de que coloquen el cartel; el espacio es un lujo, está muy bien diseñado y eso ayuda mucho en el trabajo. Poco a poco iremos cerrando flecos. La acogida de la gente no ha podido ser mejor, queremos que nuestros clientes se sientan como en casa".
En la tienda pueden comprarse pan, bollería, pasteles, periódicos y productos gourmet como vinos, patés, queso. El bar-cafetería ofrece pinchos variados y servicio de restaurante: menú del día de martes a viernes; los sábados y domingos comidas y viernes y sábados cenas, todo con menú de fin de semana. Nos iremos adaptando a lo que nos pidan los clientes. El local es una oportunidad y queremos aprovecharla". Pueden hacerse reservas en el tfno. 848 980 233.

*"Bizilagunak poz-pozik daude, eta gu ere bai", esan digu Jon Leachek. Bere ahizpa Katrin eta aita Jose Miguelekin batera, Ollokiko kafetegi-denda berriaren ardura hartu du Jonek, eta zera esan digu: "Duela lau aste ireki genuen, beti aritu izan gara enpresan, baina ez ostalaritzan; duela 2 hilabete arte gure okindegi enpresako buru izan gara, baina orain proiektu honetan dihardugu esklusiboki. Lokalak Athika 21 du izena eta kartela jartzeke dugu oraindik; luxuzko espazioa da, oso ongi diseinatuta dago eta horrek asko laguntzen du lanean. Pixkanaka-pixkanaka joanen gara gauza txikiak ebazten. Jendearen harrera ezin hobea izan da, eta nahi duguna da gure bezeroak etxean bezala senti daitezen".*

*Dendan ogia, opilak, pastelak, egunkariak eta gourmet produktuak eros daitezke, hala nola ardoak, pateak edo gazta. Taberna-kafetegiak pintxoak eta jatetxe zerbitzua eskaintzen ditu: eguneko menua asteartetik ostiralera; larunbat eta igandeetan bazkariak eta ostiral eta larunbatetan afariak, asteburuko menuarekin. Bezeroek eskatzen diguten horretara egokituko gara. Lokala aukera bat da, eta aprobetxatu egin nahi dugu". Telefonoz egin daitezke erreserbak: 848 980 233.*



## CINFA AMPLÍA SUS INSTALACIONES EN EL POLÍGONO OLLOKILANDA

## CINFAK INSTALAZIOAK HANDITU DITU OLLOKILANDA INDUSTRIALDEAN

La ampliación de sus instalaciones en el polígono de Olloki es uno de los principales proyectos de Cinfa para 2022. El nuevo edificio, concebido para incrementar la capacidad de producción y almacenamiento de la compañía, tendrá una extensión de 2.700 m2 y cuenta con una inversión de 30 millones de euros. La planta ha sido diseñada teniendo en cuenta criterios de eficiencia energética y contará con un parque fotovoltaico de autoconsumo en su cubierta.
Como compañía socialmente responsable, y en el marco de los ODS, Cinfa lleva a cabo diversas iniciativas solidarias en línea con su misión de trabajar por la salud de las personas. Entre ellas, destacan "La voz del paciente", "La mirada del paciente" y el "Teaming", que ponen el foco en la realidad cotidiana de los pacientes y otros colectivos vulnerables. Además, este otoño ha puesto en marcha, junto al Club de las Malasmadres, la acción "Ellas cuentan", que trata de apoyar y visibilizar a mujeres con diferentes luchas vitales marcadas por la enfermedad.

*Cinfak 2022rako duen proiektu nagusietako bat da Ollokiko industrialdeko instalazioak handitzea. Eraikin berria enpresaren ekoizpen eta biltegiratze ahalmena handitzeko sortu da, 2.700 m2 izanen ditu eta 30 milioi euroko inbertsioa eginen da. Instalazioa eraginkortasun energetikoko irizpideak kontuan hartuta diseinatu da, eta bere estalkian autokontsumorako parke fotovoltaikoa izanen du.*
*Erantzukizun soziala duen konpainia gisa, eta GJHen esparruan, Cinfak hainbat ekimen solidario egiten ditu, pertsonen osasunaren alde lan egiteko xedearekin bat. Horien artean, nabarmentzekoak dira "Pazientearen ahotsa", "Pazientearen begirada" eta "Teaming" izenekoak, pazienteen eta beste hainbat kolektibo zaurgarrien eguneroko errealitatean jartzen baitute arreta. Gainera, udazken honetan, Malasmadres Klubarekin batera, "Ellas cuentan" ekintza jarri du martxan. Ekimen honen bitartez, gaixotasunak markatutako bizi-borroka desberdinak dituzten emakumeak babestu eta ikusarazi nahi dira.*

NOTICIAS

ALBISTEAK



## JUVENTUD Y VIVIENDA EN EL I FORO JÓVEN DE ESTERIBAR

## GAZTEAK ETA ETXEBIZITZA ESTERIBARKO I. GAZTE FOROAN

El 29 de octubre en la Sala Polivalente del Ayuntamiento y dentro de las acciones del I Foro Jóven de Esteribar, tuvo lugar el "Foro Vivienda y Jóvenes de Esteribar", un encuentro participativo para debatir sobre las posibilidades de acceso a la vivienda de la juventud que quiere seguir residiendo en el valle. Los asistentes expusieron sus preguntas y dudas y aportaron sus propuestas; se habló de viviendas en alquiler y en propiedad y de las diferentes situaciones que se dan tanto en pueblos pequeños como en los más grandes como Zubiri, Larrasoaña u Olloki. El objetivo es fijar población en el valle y encontrar soluciones con la participación activa de la juventud. En la sesión además de vecinos y vecinas participaron el Director general de vivienda, Eneko Larrarte, la Alcaldesa de Esteribar, Matilde Añón, Ion Erro, gestor de la empresa Proyecto 21, encargada de dinamizar el foro y Alberto Azkarate, Técnico de Juventud de Esteribar, que tomaron buena nota de las propuestas y mostraron su voluntad de colaborar para mejorar la situación.

*Joan den urriaren 29an Udaleko erabilera anitzeko aretoan izan zen "Esteribarko Etxebizitza eta Gazteen Foroa", Esteribarko I. Gazte Foroaren ekintzen barruan kokatuta. Topaketa parte-har–tzailea izan zen, ibarrean bizitzen jarraitu nahi duten gazteek etxebizitza eskura–tzeko dituzten aukerei buruz eztabaidatzeko. Bertaratutakoek galderak eta zalantzak azaldu zituzten eta baita proposamenak egin ere: alokairuko eta jabe–tzako etxebizitzei buruz mintzatu zen, eta baita herri txikietan zein Zubiri, Larrasoaña edo Olloki bezalako herri handienetan gertatzen diren egoera desberdinei buruz ere. Bailaran biztanleria finkatzea da helburua, eta gazteen parte-hartze aktiboaren bitartez irtenbideak aurkitzea. Bileran, herritarrez gain, etxebizitzako zuzendari nagusi Eneko Larrartek, Esteribarko alkate Matilde Añónek, Proyecto 21 enpresako kudeatzaile Ion Errok (foroa dinamizatzeaz arduratzen dena) eta Esteribarko gazteria-teknikari Alberto Azkaratek ere parte hartu zuten. Egindako proposamenak ain–tzat hartu eta aurrerantzean egoera hobetzeko lankidetzan aritzeko borondatea agertu zuten.*



## "INFOESTERIBAR" INFORMACIÓN DEL AYUNTAMIENTO A TRAVÉS DE WHATSAPP

## "INFOESTERIBAR", UDALAREN INFORMAZIOA WHATSAPP BIDEZ

El Ayuntamiento de Esteribar en su voluntad de informar a la ciudadanía de la forma más directa posible ha habilitado una cuenta de Whatsapp para que de forma cómoda, sencilla y personal recibamos información sobre eventos, noticias y avisos de interés. No se trata de un "grupo" sino de una "lista de difusión" que permite que cada usuario reciba la información mediante un mensaje individual. Para darse de alta en el servicio, primero hay que crear el contacto, Infoesteribar con el nº 641 981 147 y a continuación enviar la palabra "ALTA" a través de Whatsaap a ese contacto creado. Más información en la contraportada.

*Esteribarko Udalak Whatsapp kontu bat prestatu du herritarrei ahalik eta modu zuzenenean informazioa emateko asmoz, modu eroso, erraz eta pertsonalean gertakizunei, albisteei zein ohar interesgarriei buruzko informazioa jaso dezagun. Ez da "talde" bat, baizik eta "hedapen-zerrenda" bat, erabiltzaile bakoitzak informazioa mezu indibidual baten bidez jasotzea ahalbidetzen duena. Zerbitzuan alta emateko, lehenik kontaktua sortu behar da: Infoesteribar izena 641 981 147 zenbakiarekin batera gorde, eta, ondoren, Whatsapp-en bidez "ALTA" hitza bidali bidali behar da sortutako kontaktu horretara. Buletinaren atzeko aldean aurkituko duzu informazio guztia.*





NOTICIAS

ALBISTEAK




## INÉS ALBA PRESENTA SU NUEVO LIBRO "DENTRO/BARNEAN"

## "DENTRO/BARNEAN" LIBURU BERRIA AURKEZTUKO DU INÉS ALBAK

Inés Alba vive en Ilarratz, es ilustradora, diseñadora gráfica y también se dedica a la encuadernación. Nos habla de su trabajo y de su nuevo libro: "Durante 2021 he realizado una estancia en el Centro Huarte donde he centrado mi exploración artística en los laberintos, el tránsito y las herramientas para transitar la vida. Fruto de esa estancia ha sido el libro "Dentro/Barnean" que incluye textos de Maite Uriz, que pronto va a salir a la venta y voy a presentar al público en la 56 edición de la Feria del Libro de Durango que se celebra en diciembre, con ediciones en español y en euskera. Mi búsqueda es comunicar a través de las imágenes, me interesa la metáfora visual, las mezclas de materiales, los contrastes. Actualmente estoy trabajando en diferentes proyectos tanto propios como por encargo, realizando ilustraciones para libros, retratos, diseñando tarjetas de visita y cartelería y haciendo encuadernaciones personalizadas. Si queréis conocer mi trabajo podéis verlo en mi instagram @soy.ines.alba y en Domestika.

*Inés Alba Ilarratzen bizi da, ilustratzailea eta diseinatzaile grafikoa da eta koadernaketan ere aritzen da. Bere lanaz eta liburu berriaz hitz egin digu: "2021ean egonaldi bat egin dut Uharte Zentroan, eta labirintoetan, igarobidean eta nire esplorazio artistikoa bizitza igaro–tzeko tresnetan oinarritu dut nire esplorazio artistikoa. Egonaldi horren emaitza izan da "Dentro/Barnean" liburua, Maite Urizen testuak biltzen dituena. Laster kaleratuko da eta Durangoko Liburu Azokaren 56. edizioan aurkeztuko dut, euskarazko eta gaztelaniazko edizioekin, abenduan. Nire bilaketa irudien bidez komunikatzean datza; metafora bisuala, materialen nahasketak eta kontrasteak interesatzen zaizkit. Gaur egun, hainbat proiektutan ari naiz lanean, batzuk neureak eta beste zenbait enkarguz jasotakoak ere, liburuetarako ilustrazioak sor–tzen, erretratuak egiten, bisita-txartelak eta kartelak diseinatzen eta koadernaketa pertsonalizatuak egiten. Nire lana ezagutu nahi baduzue, Domestika gunean eta nire instagram kontuan ikus dezakezue: @soy.ines.alba.*



## CONCIERTOS DE NAVIDAD DE LA ESCUELA DE MÚSICA ORREAGA

## ORREAGA MUSIKA ESKOLAKO GABONETAKO KONTZERTUAK

"Este año sí tendremos conciertos de Navidad", nos dice Joserra Gutierrez, director de la Escuela de Música Orreaga, "haremos el ya tradicional en Zubiri, y otro en Olloki, por la extensión de la Escuela que funciona en el Dotacional. Aunque es posible que tengamos que hacerlo en la calle, ya veremos cómo van las cosas. Es un concierto muy esperado al que suelen acudir las familias y todos disfrutamos viendo los progresos del alumnado. Este año tenemos 144 alumnos matriculados, hemos pasado un par de años complicados, pero hemos conseguido mantener las matrículas".

*"Aurten bai, Gabonetako kon–tzertuak izanen ditugu", esan digu Joserra Gutierrez Orreaga Musika Eskolako zuzendariak, "ohiko kontzertua eginen dugu Zubirin eta beste bat Ollokin, gizarte-etxean bertan martxan dugun Eskolaren hedadura dela eta. Baliteke kalean egin behar izatea, baina ikusiko dugu nola doazen gauzak. Familiak oso pozik etortzen dira kontzertura, eta denok gozatzen dugu ikasleen aurrerapenak ikusita. Bi urte zail igaro ditugu, baina matrikulei eustea lortu dugu eta aurten 144 ikasle ditugu matrikulatuta".*

CONCEJOS | KONTZEJUAK

## CONCEJOS DE ESTERIBAR: LARRASOAÑA

## ESTERIBARKO KONTZEJUAK: LARRASOAÑA




En esta ocasión hablamos con Argiloa Mangado, presidenta del Concejo de Larrasoaña. La villa es fin de etapa del Camino y poseedora de una antigua y rica historia.

**¿Desde cuándo eres presidenta del Concejo de Larrasoaña?**
Es mi segunda legislatura, fui elegida en 2015 y otra vez en 2019. En 2015 entramos 5 personas con muchas ganas de trabajar y de hacer que el pueblo mantuviese su Concejo. En 2019 continuamos 2 de las personas que ya estuvimos y entraron 3 nuevas; quiero destacar que las 5 somos mujeres.

**¿En qué proyectos estáis trabajando?**
El proyecto principal es el transfronterizo Kintoan Barna , en el que estamos junto al Ayuntamiento del Valle y los Concejos de Eugi y Zubiri. Se trata de impulsar la zona como destino turístico en base a nuestros recursos culturales, naturales y deportivos; trabajamos junto a otras 12 localidades desde Garazi a Pamplona. Este proyecto nos ha permitido reformar y mejorar el Albergue Municipal, que este año hemos podido abrir, aunque con limitaciones de aforo. Es un servicio que da el pueblo y pensamos que debíamos ofrecerlo. También hemos trabajado en la mejora de la gestión de reservas del Frontón mediante la app Resasports para móvil. Vecinos y no vecinos pueden hacer sus reservas y está funcionando muy bien. Colaboramos también con el Polideportivo, con el Club Ibararte y en otras actividades deportivas, exhibiciones o campeonatos. Necesitamos mejorar el acceso al cementerio, y para esto estamos pendientes de las ayudas del Gobierno de Navarra. Si tenemos que realizar algún proyecto, mejora o inversión, necesitamos ayuda con la financiación.

**Qué presupuesto tiene el Concejo de Larrasoaña?**
Tenemos un presupuesto de 53.330 €. y la mayor parte se la lleva el préstamo del Frontón que finalizará en 2025, el resto es para las fiestas patronales, la gestión del Albergue y el mantenimiento de los edificios propiedad del Concejo. Solo contratamos personal para el albergue de abril a octubre. Para las labores de mantenimiento del pueblo hacemos auzolanes, tenemos una ordenanza que los regula y todo el vecindario de entre 18 y 55 años debe hacer 2 auzolanes al año o pagar 40 € por cada uno. Es una tradición que no vivimos como una obligación sino como una oportunidad de trabajar en comunidad por el pueblo y relacionarnos entre nosotros.

**¿Cúal es la relación con las otras administraciones?**
Las administraciones más cercanas son el resto de Concejos y el Ayuntamiento del valle. El Ayuntamiento y los representantes de los concejos nos juntamos trimestralmente en la "Mesa de Concejos", es una buena herramienta, así la comunicación es mucho más fluída, es un espacio de intercambio de información, problemas, necesidades e ideas, tanto por parte de los Concejos como del Ayuntamiento.

*Larrasoañako Kontzejuko lehendakari Argiloa Mangadorekin mintzatu gara. hiribildua bideko etaparen amaiera dugu, eta antzinako historia aberats baten jabe.*

***Noiztik zara Larrasoañako Kontzejuko lehendakaria?***
*Nire bigarren legealdia da, 2015ean aukeratu ninduten eta 2019an berriro. 2015ean, lan egiteko eta herriak bere Kontzejua mantentzeko gogo handia zuten 5 pertsona sartu ginen. 2019an, egon ginen pertsonetako bik jarraitu genuen eta 3 pertsona berri sartu ziren; nabarmendu nahi dut bostok emakumeak garela.*

***Zein proiektutan ari zarete lanean?***
*Proiektu nagusia mugaz gaindiko Kintoan Barna da, ibarreko udalarekin eta Eugi eta Zubiriko kon–tzejuekin batera. Gure baliabide kultural, natural eta kiroletan oinarrituta, helburua da gunea helmuga turistiko gisa bultzatzea; eta horretarako, Garazitik Iruñera bidean kokatzen diren beste 12 herrirekin batera ari gara lanean. Proiektu horri esker, udal-aterpetxea berritu eta hobetu ahal izan dugu; aurten ireki ahal izan dugu azkenean, beti ere edukiera mugatuta. Herriak ematen duen zerbitzua da, eta eskaini behar genuela uste dugu. Pilotalekuko erreserben kudeaketa hobetzeko ere aritu gara lanean, mugikorrerako Resasports aplikazioaren bidez. Auzokideek eta bizilagun ez direnek ere erreserbak egin ditzakete, eta oso ongi funtzionatzen ari da. Lankide–tzan ari gara Kiroldegiarekin, Ibararte klubarekin eta beste hainbat kirol jarduera, erakustaldi edo txapelketekin ere. Hilerrirako sarbidea hobetu beharra dugu, eta horretarako NGren laguntzen zain gaude. Izan ere, proiektu, hobekuntza edo inbertsioren egin ahal izateko finantzaketan laguntza behar dugu.*

***Zer aurrekontu du Larrasoañako Kontzejuak?***
*53.330 €-ko aurrekontua dugu, eta gehiena 2025ean amaituko den frontoiaren mailegua ordaintzera bideratzen da; gainerakoa herriko jaietarako, aterpetxearen kudeaketarako eta kontzejuaren jabetzako eraikinen manten–tze-lanetarako. Aterpetxerako langileak apiriletik urrira bitartean hartzen ditugu soilik. Herriaren mantentze-lanetarako auzolanak egiten ditugu, horiek arautzen dituen ordenantza daukagu eta 18 eta 55 urte bitarteko bizilagun guztiek urtean 2 auzolan egin behar dituzte, edo 40€ ordaindu bakoi–tzagatik. Tradizio hori ez dugu betebehar gisa bizi, herriaren alde komunitatean lan egiteko eta gure artean harremanak izateko aukera gisa baizik.*

***Zein da beste administrazioekiko harremana?***
*Administrazio hurbilenak gainerako kontzejuak eta ibarreko Udala dira. Udala eta kontzejuetako ordezkariak hiru hilean behin elkartzen gara Kontzejuen Mahaian. Tresna egokia da, komunikazioa nabarmen arintzen du eta informazio, arazo, behar eta ideien trukaketarako gunea da bai Kontzejuen aldetik, bai Udalaren aldetik ere.*

DEPORTE | KIROL



## ESTERIBAR FINAL DE REMONTE Y CLUB PELOTAZALE

## ESTERIBAR, ERREMONTE FINALA ETA PILOTAZALE KLUBA

*La final se celebró en el frontón del polideportivo de Esteribar*

*Finala Esteribar kiroldegiko frontoian ospatu zen*

